

Ahultasun-egoera handieneko emakumeak ahalduntzea.

Tokiko antolakundea: [Santa Anaren Karitateko Ahizpak](#)

Iraunaldia: 2017ko abendutik 2019ko abendura.

Zenbatekoa: 775.617,30 €

Finantzaketa: [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia](#) eta tokiko ekarpena ([Santa Anaren Karitateko Ahizpak](#)).

Laburpena:

Proiektu honen helburua da Shrirampur eskualdean (Maharashtra estatua) ahultasun-egoera handienean dauden emakumeak ahalduntzen laguntzea, beren eskubideak erabil ditzaten eta beren gaitasunak gara ditzaten sustatuz, eta parte hartzeko prozesu eraginkorrak abian jarritz, genero-ekitatearen, sareko lanaren, eragin politikoaren eta herritar guztientzako sentsibilizazio orokorraren arloetan.



Horretarako, jarduera hauek dira egitekoak:

- Emakume-antolakundeak sortu eta sendotzea, emakume liderrak prestatuz eta erakundeetako kide guztiak gaituz antolaketaren eta parte-hartzearen arloko sistemetan, sistema sozialetan nahiz emakumeen eskubideen inguruan.
- Prebentziozko eta sendabidezko osasun-hobekuntza kalitadedun bat ziurtatzea, genero-ekitatearen ikuspegia hartuta, emakumeak osasun-sektorerako prestatuz eta emakumeek sektorean parte hartuz. Jarduera hau eramango da aurrera energia berriztagarriak erabiliz sortutako eta hornitutako osasun-zentro integralaren bidez.
- Sareko lanerako eta eragin politikorako estrategiak sustatzea emakumeen, beraien antolakundeen, entitate sozialen eta erakundeen artean.
- Emakumeen eskubide sozial eta sanitarioak sustatzea, proiektuaren jarduerari lotutako komunitateentzat zabalkunde eta sentsibilizazioko kanpainak eginez.